

Aurten ere, Aiaraldeko ikastetxe guztietan landu da bertsoaritza

Unai Mendibil aritu da kurtso honetan zehar **GU ERE BERTSOTAN** programa lantzen gure eskualdeko lehen hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailatan eta bigarren hezkuntzako d.b.hko lehenengo eta bigarren mailatan. Bertsoak ezagutzeko, egiteko, moldatzeko... aukera izateaz gain, aitzakia ederra izan da hizkuntzarekin jolasteko.

Laudio, Amurrio eta Urduñako udaletxeen eta Aiarako koadrillaren laguntzaz gauzatu du proiektu proiektu hau Arabako Bertsozale elkarteak.

GU ERE BERTSOLARI programa "Bertsolaritzaren Curriculuma" lanean oinarritzen da eta lau eremu lantzen ditu: **MUSIKA, KULTURA, HIZKUNTZA** eta **TREBETASUN PERTSONAL ETA SOZIALAK**.



IKASTETXEAK

AMURRIO

- Lukas Rey Ikastetxea
- Zabaleko ikastetxea
- Aresketa ikastola
- Zaraobe Institutua
- Virgen Niña ikastetxea

LAUDIO:

- Lateorro ikastetxea
- Lamuza ikastetxea
- La Milagrosa ikastetxea
- Laudio ikastola
- Fabian Legorburu ikastetxea

AIARA


- Etxaurren ikastola

ARTZINIEGA

- Arteko Gure Ama ikastetxea, Artziniega

URDUÑA

- Josefino de Murialdo
- Urduña Herri eskola



BERTSO ABENTURA ESPEJON

Espejoko aterpetxe eta ingurune ederraz gozatzeko aukera izan dute Aiaraldeko umeek aurtengoan ere.

Arabako bertsozale elkarteak, Aiaraldeko udal-txe eta koadrillarekin elkarlanean, bertso abentura antolatu du.

4. urtea izan da aurtengoa bertso barnetegi hau antolatzen dela. Urtez urte indarra eta sendotasuna ari da hartzen aste santu garaian gauzatzen den Aiaraldeko bertso barnetegia.

Apirilaren 22tik 24ra, Amurrio, Urduña, Aiara, eta Laudioko 43 ume elkartu ziren Espejoko aterpetxean.

Bertsolaritza mundua ezagutarazi, euskara suspertu eta bultzatzea eta eskualdeko herri ezberdinetako umeen arteko harremanak sustatzea dira bertso barnetegi honen helburuak.

Bertan, primeran pasatzeko aukera asko izan zituzten umeek, bertsoa, kantak, jolasak, gaubelak, ... Giro paregabea pasatu genituen 3 egun hauek. Herri ezberdinetako umeak elkar ezagutzeko eta euskara hutsean egun batzuk pasatzeko aukera ezin hobea!!



KOADRILLA ARTEKOA 2014

Kuadrillarteko berritu eta berritzailea iritsi da aurtengoan gurera.

Lehiarik gabe egin dugu, elkartzea bade-lako nahikoa aitzakia bertsoaz gozatzeko.

Norekin, non, zenbat kantatu eta gai-nontzeko gora behera guztiak taldeen esku gelditu dira. Talde bakoitzaren auto-nomia erabatekoa izan da. Taldeak ezaugarri eta zeregin ezberdinetako bertsolari eta bertsozalez osatu dira, bertsolariak, argazkilaria, sukaldariak, kronika egilea,...

Parte hartze handia izan du eta dugu, Aiaraldeako bi talde aritu baitira bat bateko saioetan. Amurrio eta Laudioko sei bertsolari eta beste hamaika lagunek hartu dute parte koadrilla artekoan.

Herri eta formatu ezberdinetako 6 saioetan ibili dira aiaraldearrak.



KuadrillartekoAren azken hitzordua Agurainen izan zen Martxoaren 29an .

Egun honetan festa handia ospatu zen Egun osoko egitaraua osatu zuten bertso eskolek, talde parte hartzaileek eta Arabako Bertsozale Elkar-teak

Giro ederrean aritu ziren bertaratuak, poteoan, dantzaz, bertsoan... Agurain bertsoz, koadrilla arteko girooz, musikaz, dantzaz... bete genuen. Guzti hori , inongo lehiarik gabe.

Lehiarik gabeko "txapelketa" honek , irudi eta oroitzapen ederrak utzi dizkigu.

Bertsoa jolas bezala hartuta eta epaileen puntuazioak alde batera utzita, gozamina izan da nagusi!!

Eskolartekoa: festa handia!

Maiatzaren 31n ospatu genuen Eskolartekoa. Azken urteetan ohi bezala, Legutioko Kultur etxeko aretoa eta frontoia izan ziren hautatutako tokia.

Bertso sortek ireki zuten goizeko Legutioko kultur etxean hasi zen bertso festa. Aramaioko bertso-eskolako txikiak izan ziren lehenak oholtzara igotzen eta ederki piztu zuten giroa umorez betetako bertso-sorta antologiko baten bidez. Horien ondotik Aguraingo bertso-eskolako haurrek Eskorbutoren doinuak oholtzara igo zituzten entzule guztiak kantuz jartzea lortu zutelarik. Azken bertso-sorta Murgiako bertso-eskolako gazteena izan zen, eta bertsolari eta perkusiolari bikainak direla erakutsiz ondoren bat-batean aritu behar zuten 6 gazteak zirikatzeo aukera ez zuten alperrik galdu.

Irribarrea ahoan oholtzaratu ziren beraz Maria Fuentes, Mar- kel Yoller, Egoitz Iradier, Peru Abarrategi, Maddalen Arrausi eta Unai Argote. Irribarrez baina bertsoan euren onena emateko prest. Zortziko nagusian zein txikian saio arinak eta umore ukitu ederrekin eskaini zizkiguten. 60 entzuleren aurrean, saio orekatua eta bizia osatu zuten ofizioka. Ondoren bakarkakoen txanda iritsi zen, puntuari erantzun eta gaiari bi bertso bota beharra. Hasiera batean lan nekeza iruditu arren, entzulek gogoz txalotu zuten sei bertsolarien ahalegina eta ale ederrak entzuteko parada izan zuten bertaratutako guztiek.

Saioa bukatzean jakin genuen Peru Abarrategik (txapeldun) eta Maddalen Arrausik (ordezkatuko gaituztela EHko eskolartekoan).

Bat-bateko saioa amaituta eguraldi eskasari irribarre eginez, kalejiran abiatu ziren haur, gazte eta gurasoak kalean barna. Alboka, pandero eta puntuatu gabeko bertsoek hartu zuten katea. eta 15:00etan Kiroldegiaren aterpean herri bazkari goxoa izan zuten eskerroneko sari. Bazkalostean herri olinpiadak burutu zituzten, tentsioak alde batera utzita, bertso-eskola guztiak nahastuta, egunari amaiera bikaina emanez.



ZATOZ BERTSO ESKOLARA!!!

LAUDIO: - Umeen bertso eskola

- Helduen bertso eskola

AMURRIO: - Helduen bertso eskola

*informazioa: 606895739



Arabako Bertsozale Elkartea
Benito Perez Galdos, z/g- Amaia Zentroa

www.bertsozale.com/araba

www.bertsoa.com